



INIGO AZKONA

**Iñaki Barcena**

EKOLOGISTAK MARTXANEKO KIDEA ♦

## Petro... nor?

JOSU JON IMAZEK honela dio: “Petronor petrolioaren sektorearen industria abangoardian dago eta bere ingurunearen tradizio zein hurbiltasunaren espiritua adierazten du. Hari zor dio ekoizteko duen indarra. Horregatik, bere helburua nazioarteko merkatuan lehiatzeko hobetzea da eta bere emaitzak ingurunera igortzea”. Bera da enpresako presidentea. Nire aburuz bada garaia berba horiek aldatu edota egokitzeke.

ABANGOARDIA? 1968an jaiotako enpresa, Kantauri itsasoaren ondoan, ez dago jadanik abangoardian. Jarraituko dute esaten, Espainiako lehenengo petrolio-findegi enpresa dela, baina 2013ko zorrak ezin ditu estali. Urrun dago 2007an irabazitako 295 milioi euro irabaztetik. 2012an 18,1 milioi euro besterik ez zuen irabazi, eta pasa den urtean, lehen aldiz, zenbaki gorritan sartu zen. Nahiz eta 8,7 milioi tona petrolio findu (2012an baino 1,2 milioi tona gehiago), zenbaki negatibotan bukatu zuen, 87,5 milioi euroko galerekin. Zergatik? Funtsean, petrolio milaka kilometrora erauzten delako eta fintzearen negozioak bertan, putzuen ondoan ari direlako kokatzen. Petronorrek gero eta petrolio astunagoa, txarragoa eta ahalik eta merkeena erosten du koke planta berria fintzeko, baina zenbakiak ez dira onak, eta etorkizunean ez du ematen aldatuko direnik.

*2012an 8,1 milioi euro besterik ez zuen irabazi, eta pasa den urtean, lehen aldiz, zenbaki gorritan sartu zen*

INGURUNEA? Duela bost urte, Amatiño, Petronorreko prentsa arduraduna, koke plantaren auziaren gainean elkarrizketatu nahi genuen eta ezetzaren ostean, honela erantzun zigun: “Gatazka, non? Hemen ez dago gatazkarik”. Koke plantaren auzia luzea izan da eta Petronorrek salbaziotzat jotzen zuen instalakuntza hau merkatuan jarduteko. Ez ikusiarena eginez erantzuten zieten kritikei. Baina erreparatzen badiogu egiten duten ingurunearen gaineko propagandari, oso kezkatuta omen daude irudi korporatiboarekin. Horregatik Petronorrek bi milioi euro ematen dio Bilboko Athletici euren logoa kamisetan eramatearren, baina, noiz arte?

TRANSTIZIO ENERGETIKOA? Petrolio, gasa, ikatza edota uranioa kontsumitzen ditugun neurrian ez dira luzarorako izango. Eguzkia dugu energia iturri sostengarri bakarra, horregatik eredu energetikoaren aldaketarako, erregai fosiletatik energia berriztagarrietarako trantsizioa ezinbestekoa dugu. Euskal Herrian trantsizio horretarako baliabide sozial, ekonomiko eta teknologikoak ditugu, beste herrialdeetan baino askoz hobeto gaude. Galdera da, Petronor eta Iberdrola eta beste eragile energetiko transnazionalak, soluzioaren parte dira ala arazoarena? ■



DANI BLANCO



**Itxaro Borda**



IDAZLEA

## Otsoak artzain

EUROPAKO BATZORDEAREN buru jarri dute Jean Claude Juncker entzutetsua, ez hain aspaldi. Luxemburgokoa da jatorriz eta guztiek dakigu dukerri hori Europaren baitako bizpahiru paradisu fiskaletatik bat dela. Aberatsetan aberatsena. Multinazional gehienak, Ikea, Amazon edo Apple, adibidez, bertan errotuak dira, han eta hemen eskuratzen dituzten uzta erraldoien gainean, ahalik eta zerga gutxien ordaintzeko. Nazio-estatuak izorratzeko helburua betea da eta moral neoliberal zaindua.

Bizkitartean, ironia balitz ederrago liteke, Europako Batzordearen lehen iru-

zur fiskalaren aurkako borroka indartzea dela erran dute goraki. Ez dituzte industria militarren eremuko enpresen pribilegioak kenduko, haien premia dutelako funtsean, arditari arditaren zukua ateratzeko oraino. Antza denez, intentzio deklarazioak dira nagusi. Ez dute deus eginen, merkatuen labanaz hiritar amilduen eskubideak urratzeaz aparte, jendetza horren beraren konplizitatearekin, Europaren salbatzeko sakrifizioak biderkatzeko prest dagoela erakusten baitute aburu ikerketa batzuek.

Otsoak artzain, hoberik ez da. ■

